

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## HERNANI ANTZERKIA

### Antzerki Ziklorako sarrerak, gaurtik

Azaroaren 12, 13 eta 14an izango da Antzerki Zikloa, hiru obrarekin: *Zaldi urdina*, *Utzi mezua seinalearen ondoren*, eta *Elisa y Marcela*, hurrenez hurren. Guztientzako sarrerak, gaur jarriko dituzte salgai, erdia goizez eta beste erdia arratsaldean, Biterin. 7,5 euro dira baita ere, larunbat honetako *Ehuna* haur antzerkirako sarrerak, Biterin, 3 euroan. ||

## ASTIGARRAGA UDALA

### Kultur etxearen izena proposatzeko aukera, 28ra arte

Kultur etxe berriarentzako izen bila dabil Astigarragako Udala, eta herritarren proposamenak jasotzeko epea zabaldu du. Azaroaren 28ra arte izango da horretarako aukera, udaletxean, kultur etxean, edo *astigarraga.kultura@gmail.com* helbidean. Proposamen guztiak aztertu, eta «izenaren oinarria, arazoak eta erabilgarritasuna kontutan hartuz» erabakiko du. ||

## ASTIGARRAGA ZINEA

### Sarrerak salgai, 'Batman Lego' ikusteko

Marrakzi bizidunetako pelikula jarriko dute larunbatean, arratsaldeko 17:00etan, Astigarragako kultur etxean: *Batman Lego*, euskeraz eta sarrerak, eskurgarri daude gaurtik, kultur etxean, edo *www.astigarraga.eus* web orrian. 2 euro dira. ||

## HERNANI HITZALDIA

### Espainiako energetiken eragina aztergai, etzi

Hitzaldia antolatu dute etzi, Mugen Gainetik, Txiapasen Alde eta Lumaltik elkarteek, arratsaldeko 19:00etan Biterin. Claudia Vázquez mexikarra, Mario Minera guatemalarra, eta Goienerreko ordezkari bat izango dira hizlari, eta ariko dira elektrizitate-enpresa espainiarrek duten eraginaz, Mexikon eta Guatemalan. ||

## HERNANI-ASTIGARRAGA BERTSOLARITZA

# Bostetik bost sailkatu dira finalerdietara, Iraulio Panttalone bertso eskolatik

Azkoitiako final laurdena irabazi zuen Beñat Gaztelumendik, larunbat arratsaldean; eta saioko puntuazio bajuei esker, Asier Azpirozek eta Unai Gaztelumendik ere egin dute aurrera.

SEGURU ziren Eñaut Martikorena hernaniarra eta Agin Laburu astigarrarra, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren azkenurreko fasean; eta batu egin zaizkie, Iraulio Panttalone bertso eskolako beste hiru ordezkariak ere. Final laurdenetan aritu diren guztiek egin dute aurrera, hortaz.

Martikorenak eta Laburuk bezala lortu du txartela, Beñat Gaztelumendik ere: bere saioa irabazita. Erraz egin zuen bertsoan añorgarrak, larunbat arratsaldean, Azkoitiako Bazartxo antzokian; eta ia ariketa guztietan puntuazio altuena lortuta, nabarmen nagusitu zen, 475 punturekin. Bigarrenak, Ane Labaka lasartearrak, 455 puntu lortu zituen... Eta saio horretako beste inor ez da sailkatu.

Izan ere, puntuazio bajuak

lortu zituzten, gainerako parte-hartzaileek; eta horri esker sailkatu dira Hernaniko bertso eskolako beste bi kideak ere: 14garren postuan egin du aurrera Asier Azpiroz zubietarrak (458,5 puntu), eta azkeneko pasoa eskuratu du Unai Gaztelumendi añorgarrak (451,5 puntu), 18garren, hurrengoari puntu erdiko aldea aterata.

### Arrasaten eta Oiartzunen zita, bertso eskolakoek

Hiru finalerdi jokatu dira orain, baina horietako bitan daude banatuta, Hernaniko bertso eskolako bostak. Arrasaten ariko dira Laburu, Martikorena eta Unai Gaztelumendi, azaroaren 17an, arratsaldeko 17:00etan Uarkape frontoian. Eta Oiartzunen daukate hitzordua Azpirozek eta Beñat Gaztelumendik, hilaren 24an, ordu



Beñat Gaztelumendi bertsoan, Azkoitiako final laurdenean.

berean Elorsoro kiroldegian.

Bi saioetarako sarrerak, da-goieneko salgai daude, *bertsolarerak.eus* atarian. Helduenak 13 euro dira, eta 6 eta 16 urte bitarteko gazteenak 7 euro.

Hiru finalerdietako irabaz-

leak, zuzenean pasako dira finalera; eta haiekin batera, puntuazio altuena lortzen duten beste bost bertsolariak, abenduaren 14an Ilunben ariko den zortzikotea osatzeko. Horretarako ere, sarrerak salgai. ||

## HERNANI ERRUGBIA

# Kontrario indartsuari hortzak erakutsita, saririk ez

Partidu ona jokatu zuen Hernanik, defentsan presio lan haundia eginez, eta aurretik iritsi zen atsedenaldira; baina bere indarra azaleratu zuen Alcobendasek azkenean, 36-25 irabazteko.

OSO estu hartu zuen Hernanik Alcobendas, atzo eguerdian, Las Terrazas zelaian. Trikolorek partidu ona jokatu zuten, eta aurretik iritsi ziren atsedenaldira, baina ezin izan zioten eutsi madrildarren indarrari, bigarren zatian (36-25).

Hasieratik aritu zen ausart Hernani, defentsan ondo eutsiz eta baloia zeramanari presio

haundia eginez etengabe; eta horri esker, kontrarioen akatsak eragin eta baloia berreskuratu zuen hainbatetan.

Edozein kasutan, Alcobendas aurreratu zen, aurreneko entsaioarekin, *meleetan* zeukan nagusitasuna aprobetxatuz. Berehala berdindu zuten trikolorek, Mattin Colladoren eskutik, baloia berreskuratu eta

korrikaldi ederra eginda (7-7).

Baina bi entsaioarekin, ihes egin zuen Alcobendasek (19-7). Ez zuen luze joko. Zigor kolpea lortu zuen Anartz Elosegik berehala, eta aurreneko zatia bukatu aurretik, Abeciaren entsaioak eta Elosegiren beste zigor kolpe batek, aurretik jarri zituzten trikoloreak (19-20).

Atsedenaldiran amestutako-

ak, ordea, 8 minututan uxatu zituen Alcobendasek, bi entsaioarekin (31-20); eta hirugarren batekin, beranduago (36-20).

Mikel Bidegarayren entsaio batek, bizirik mantendu zuen defentsako bonusa lortzeko aukera; baina azkenean, saririk gabe bueltatu zen Hernani, kontrario indartsuari hortzak erakutsi ondoren. ||

ANTZIOLA, 3  
943 55 17 91  
HERNANI

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA

**Samitek**  
Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua  
samitek@samitek.es  
www.samitek.es

**TOSHIBA**  
INFORMATIKA  
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

FUNERARIA  
ORBEGOZO  
BEILATOKIA

Asegururik  
ba al duzu?  
Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.  
943 33 10 20  
www.funerariorbegozo.com

HERNANI  
ANDOAIN  
ASTIGARRAGA  
URNIETA  
GOIZUETA

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

**GAUR** Euria egingo du gaur ere, baina kokka bat igoko da tenperatura. Gero eta ugariagoak izango dira prezipitazioak, eta giro ezatsegina nagusituko da berriro. Gainera, haizea ere bizi eta zakar ibiliko da, hego-mendebaldetik. **Min.13° / Max.19°**

**BIHAR** Euria eta giro frexkoa izango dira protagonista, bihar. Baliteke eguerdira arte ateru eustea, baina euritara joko du gero, eta ia etengabe egingo du, eguna bukatu arte. Mendebaldeko haizea ibiliko da, eta traba egingo du tarteka. **Min.11° / Max.16°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI MENDIRIZ MENDI



Eski gainean bizitakoak kontatuko dituzte gaur, Sasigain, Zabarte eta Mendizabalek. Argazkia: Jon Sasigain

## Pirineoak, Argentina eta Japonia eski gainean, aste berezia hasteko

Gaur hasiko da Mendizale Astea, 19:30etan Biterin, 'Eskia Argentina, Japonia eta Auñamendietan' proiektioarekin. Bihar, berriz, 'Biziminez'.

MUNDU osoko mendietara eramango ditu herritarrak Mendiriz Mendik, proiektio bidez, beste urte batez. Gaur hasiko da Mendizale Astea, eta ostiraleran bitarte, egunero izango da proiektio bana, Biterin.

Gaurkoan, hasiera emateko, Jon Sasigain, Aitor Zabarte eta Aitzol Mendizabal eskia-tzaileak egongo dira bertan, arratsaldeko 19:30etan hasita, *Eskia Argentina, Japonia eta Auñamendietan* izeneko pro-

iektioarekin. Hain justu, eza-gutzera emango dituzte, Pirineoetan, Andean eta Japonian barrena dauden eski eremu ezberdinak, beraien esperientzia eta bizipenak azalduz.

**'Biziminez' filma, bihar** Bestelakoa izango da biharko saioa. *Biziminez* pelikula jarriko dute, Josu Iztuetarena, arratsaldeko 19:30etan Biterin.

Filmak kontatzen ditu, bi lagunek Estatu Batuetako erre-

pideetan zehar egindako bidaiaren baten oroitzapen eta bizipenak. «Errepideko zeharkaldia bera baino, garrantzitsuagoa da barne bidaiak: oroitzapen eta bizipen eder eta ez hain ederrak, jolasak, eta bidean aurkitutako oztopoak, negarrez eta umorez gaindituko dituztenak. Bizitzari buruzko gogoeta sakona da, bi adiskideren erretatu zintzoa, bizimina transmititzen duen *road movie* hunkigarria», aurreratu dute. ■

## HERNANI GIPUZKOA ARGITU

## Argindarraren fakturan aurrezten ikasteko, beste bi saio Hernanin

Azaroaren 12an da aurrenekoa: 'Argindarraren kontsumoen informazio egokia eskuratu eta kontrolatzeko saio praktikoa'. Izena eman behar da.

HERRITARREI zein komertzioei zuzenduta, argindarraren fakturan aurrezteko saioak ari dira eskaintzen, Gipuzkoa Argitu programaren barruan. Eta Hernanin izango dira berriro, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Azaroaren 12an izango da aurreneko saioa: *Argindarraren kontsumoen informazio egokia eskuratu eta kontrolatzeko saio praktikoa*. Udaberrian ere eskaini zuten saio hori bera, eta «izandako harrera ona» ikusita, bigarrenez antolatzea era-

baki dute. Parte hartzeko, izena eman behar da aurretik, eta ostiraleran bitarte dago epea: [oihane@izadi21.eus](mailto:oihane@izadi21.eus) helbidean, edota 686 427 565 telefonoan (08:00etatik 16:00etara).

Gainera, nahi duenak, gai horri buruzko bideo-tutorialak ere badauzka eskura, programaren atarian: [www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/argitu](http://www.gipuzkoaingurumena.eus/eu/argitu).

**Energia berriztagarriak ezartzeko saioa, aurrenekoz** Bigarren saioa azaroaren 25ean egongo dute, eta berria izango

da hori: *Etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko saio praktikoa*. Aurrenekoz eskainiko dute Hernanin, arratsaldeko 18:00etan Biterin; eta horretarako ere, izena eman behar da, bide berdinetan, azaroaren 22a baino lehen.

«Energia berriztagarrien inguruko araudia aldatu berri da, eta ondorioz, orain errazagoa da teknologia horiek etxebizitzetan erabiltzea», azaldu dute. Aditu batekin, modu praktikoan ezagutuko dute saioan, zein baldintza bete behar diren. ■

## HERNANI EH BILDU

## Mertxe Aizpuruak eta Gorka Elejabarrietak, ekitaldia gaur Biterin

Arratsaldeko 19:00etan izango dira bertan, igandeko hauteskundeetarako hautagaiak.

EKITALDI politikoa antolatu du EH Bilduk gaur, Hernanin. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Biterin; eta bertan egongo dira Mertxe Aizpuru eta Gorka Elejabarrieta, Kongresurako eta Senadurako hauteskundeetarako hautagaiak.

EH Bilduk nabarmendu du, «garrantzia handia» eman diola, Kongresuan eta Senaduan «ordezkaritza sendoa» izateari. Eta horregatik, alderdiko kide eta zaleak gonbidatu ditu, parte hartu dezaten

gaurko ekitaldian, eta datorren igandeko hauteskundeetan, «gure eskubideak errespetatu daitezten. Guk egiten ez badugu, ez du gugatik inork egingo», aldarrikatu du.

Kongresurako zerrendan, Aizpuruak lagun izango ditu, besteak beste, Hernanin bizi den Juan Mari Olano, Jon Iñarritu eta Esther Larrañaga; eta Senadurako, Elejabarrietarekin batera dira, Aitor Ibero Hernaniko Udaleko langilea, edota Olaia Duarte. ■

## HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA



Hainbat erronkalariren testigantzak jasotzen dira liburuan, eta aurkezpen ekitaldian ere izan ziren, haletako batzuk.

## 'Baietz Hernanik!' liburua eskuragarri, Doberan

Euskara elkartearen bulegoan eskuratu dezakete, aurkezpena azaltzerik izan ez zutenek.

JOAN den astean aurkeztu zuten Biterin, *Baietz Hernanik!* liburua, Amagoia Mujika Telleriak egindakoa, 2018an zehar Euskara Ari Duk gauzatutako erronkak eman zuenari buruz.

Jende asko elkartu zen aurkezpen ekitaldi horretan, eta guztiak jaso zuten liburuaren ale bana, opari.

Baina bertaraterik izan ez zutenek, edota erronkan parte hartu eta liburuan interesa duten guztiak, aukera daukate oraindik ere, liburua eskuratzeko. Dobera Euskara Elkartearen bulegoan (Larramendi kalea 11, behe) daude eskuragarri, eta bertatik pasa daitezke, ale bat jasotzera. ■

## IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.  
Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)